

t tipi t tapa

421



Doneztebeko Mendi Abesbatzak 10 urte **03**

Hamar urte bete ditu Doneztebeko Mendi Abesbatzak eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Jon Iratzoki zuzendariarekin izan gara.



400 kirolari Berako Mendi Maratoi Erdian **28**

Ionut Zinka errumaniarrak aurre hartu zion Fernando Etxegarai beratarrari Mendi Maratoi Erdian. Guzira 400 korrikalari atera ziren Berako proba ikusgarrian.

2006ko maiatzaren 4a • XXVI. urtea

04 SUNBILDARRAK AMERIKETAN

Artzaien bizimodua liburuan bildua



Lasao

egurrezko altzaria



EUSKAL HERRIAN ESTIMATZEN DEN ALTZARIA

www.lasao.com

DATUAK...

- Doneztebeko Mendi Abesbatzak hamar urte bete dituela eta, zenbait ospakizun antolatu dira.
- Lehena, Gasteizko Samaniego abesbatzak eskainitako kontzertua izan zen. Aste hondar honetan, maiatzaren 6an kontzertua eskainiko du Mendik Doneztebeko elizan.
- Ekainaren 3an, lehengo eta oraingo korukideak bilduko dira. Mendikoekin batera, Hendaiako Entzun eta Ereñozuko Ozenki abesbatzek kantatuko dute.



Jon IRATZOKI Doneztebeko Mendi Abesbatzako zuzendaria

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

ELKARRIZKETA
ELKARRIZKETA

«Abesbatzak irautea izaten da herri ttikietako koruen erronkarik zailena»

Aitor AROTZENA

Hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldietan buru-belarri sartuak zaudete... Zein izanen dira nagusienak?

Hamargarren urteurrena zenez, urtero egiten genuenetik zerbait aldatu nahi genuen eta hiru ardatz planteatu genituen. Lehenbizikoa, hemen normalean aditzen dugun abesbatzek baino kalitate hobegoko zerbait ekartzea izan zen: jende gaztea, musikatua, zuzendari ezagunarekin... hori hainbat sari irabaziak dituen Samaniego abesbatzarekin lortu genuen apirilaren 8an. Ondotik, maiatzaren 6an guk eskainiko dugu kontzertua, urteroko ildotik, baina hamar urteotako laborpena eginez: landu dugun polifonia; Mendi abesbatzaren oinarria den folklorea hiru multzotan, ingelesez, gazteleraz eta euskaraz egiten dugunarekin...

Eta ekitaldi nagusia ekainaren 3koa. Urteotan abesbatzatik pasatutako guziak bildu nahi dituzue... Ekitaldi garrantzitsuena izanen da, bai, zita honen inguruan antolatu baitugu bertze guzia. Mendi abesbatzan

«Ez bakarrik kopuru aldetik, emakume eta baxu aunitz izanda ere, tenoreak falta badituzu abesbatza kolokan gelditzen da»

parte hartu duten eta dugun guziak biltzeko asmoa dugu eta ospatzea. Gutunak bidali zaizkie abeslari ohiguzei, baita txistulariei ere. Horretaz gain, Hendaiako Entzun eta Ereñozuko Ozenki abesbatza etorriko dira, harreman berezia dugulako. Gero, afaria egingen dugu Elor-Txurin.

Lehengo eta oraingo korukideak kontuan hartuz, zenbatsu jende pasatu da Mendi abesbatzatik?

Ehun inguru izaten ahal dira, nahiko zenbaki handia da hamar urterako. Bada hasieratik dagoen jendea oraindik segitzen duena... Gaur egun 36 abeslari inguru gara.

Nola sortu zen duela hamar urte Mendi abesbatza eta zein izan da urte hauetako bilakaera?

Musika eskolako Iñaki Dieguez zuzendariak eta piano irakaslea zenak garai hartan, ezagutzen zuten jendea biltzeko eta eguberrietako kontzertua

egiteko ideia izan zuten. Deialdia egin eta jende pila agertu zitzaizen eta kontzertua egin zuten. Ikusirik zenbat jende zegoen eta zer ilusioa zuten, zerbait iraunkorragoa egitea pentsatu eta horrela hasi zen. Gaur den egunean adin guzietako jendea daukagu. Noski, gazteak nahi baino guttiago, baina badira herriotan gazte guttiago daukaten abesbatzak ere. Ikasketak direla, lana dela... utzi egiten dute eta ez da errexa mantentzen. Batez ere Doneztebekoak dira, baina badira Legasakoak eta Oitzekoak, Iturengoak izan ditugu... noski, irekiak gaude inguruko jendearentzat. **Zein izaten dira herri ttikietako abesbatzen premiarik larrienak?**

Eginkizun nagusia eta zailena koruak irautea izaten da. Aldaketa eta goiti-beheiti handiak izaten dira. Ez da erraza hain herri ttikietan horrelako abesbatzak mantentzea. Inguru honetako abesbatzen arazo nagusia dela uste dut. Ez bakarrik kopuru aldetik, emakume eta baxu aunitz izan, baina tenoreak falta badituzu abesbatza kolokan gelditzen da. Hori da gure erronka nagusienetako bat.



ARGAZKIA: AITOR

Istolako Jesus Mari Jorajuria, Iruribieta Etxeberriako Fermin Zelaieta, Mugerdiko Juan Luis Altzugarai, Artzain Mundua Fundazioko Miren Elgarresta, Etxegiako Jose Mari Arretxea eta Jose Mari Hernandorena, Sunbillako alkatea.

«SUNBILDARRAK AMERIKETAN» LIBURUA AURKEZTU DUTE

Mende batean 300 sunbildar baino gehiago joan ziren Amerikara artzain

Berriki arte Euskal Herria emigranteen herria izan dela jakina da. Hainbat eta hainbat izan ziren Ameriketara bizimodua ateratzeko intentzioarekin joan zirenak, aunitz artzain lanak eginez. “Amerikano” ugari eman dituen herri bat bada, hori Sunbilla da. Azkeneko 20 urteetan ohitura bihurtu da maiatzaren 1eko “Artzain Amerikanen besta”. Aurten ere ospatu dute, baina urteroko egitarauan izan dute ospakizun berezi bat ere: berriki argitaratu den «Sunbildarrak Ameriketan: Sunbilla un pueblo de emigrantes» liburuaren aurkezpena. Emigrazioak Sunbillan izan duen indarraren erakusgarri, kopuru bat ematea aski da: 1898tik 1993ra, mende eskasean, 313 sunbildar joan ziren Ameriketara.

Aitor AROTZENA

Emigrante hauen inguruko datuak, argazkiak, testigantzak eta hainbat xehetasun biltzen ditu “Sunbildarrak Ameriketan” liburuak bere 300 orrietan. Diario de Noticias egunkariak ar-

gitaratu du, Conasa, Udalbide, Ulibeltzak elkarte eta Artzain Mundua Fundazioaren laguntzarekin. Erredakzio talde zabalean, Jesus Goldaraz Doneztebeko apezka, Diario de Noticiaseko Jon Barriola eta Lander San-

tamaria, Isabel Elizalde eta Sunbillako artzaiak aritu dira.

Liburua Sunbillako emigratioari eskainia bada ere, lehenbiziko zatian Sunbilla bera dute hizpide: herriaren deskripzioa, geografia eta historia biltzen da, baita bere herria bihotzez maite duen Paco Latasa sunbildarren oroitzapenak.

Segidan, emigratioari eskainitako atala dator. Bertan, bizimodu hobe baten bila Ameriketara joan eta itzulitako sunbildarren testigantzak biltzen dira, baita hauen bi amena ere. Arestian aipatu bezala, XX. mendean, 1898tik 1993ra zehazki, Ameriketara joandako 313 sunbildarren datuak bildu dituzte liburuaren egileek. Baina bazen aitzinetik joandakorik ere. XVII. mendean, 1640an Sunbillan jaio zen Juan de Aranibar Telleria izan omen

Jesus Mari JORAJURIA *Istola baserrikoa*

“Hemen aitzinbiderik ez zenez aita eta bederatzia senide joan ginen artzain”

Zer oroitzapen dituzu Ameriketara emandako urteetaz?

1967an joan nintzen, hemezortzi urte bete eta segidan. 5 urtez izan nintzen artzain, bueltatu eta berriz ere joan nintzen, eraikuntzan aritzera. Lau urte egin nituen, bederatzia denetara. Hameka senide ginen eta anai zaharrena eta arreba hemen gelditu ziren, baina bederatzia anai jo-

an ginen. Lehendik aita ere joana zen eta bat bertzearen ondotik arditara joan ginen.

Zergatik joan zinen?

Hemen ez zegoen gauza handirik eta nonbait bizia atera behar. Urte batez, Iñauteriak egin eta segidan 16 sunbildar batera joan ziren Ameriketara. Ez baitzen deus ere.

Orain egoera aldatu da...

Orain Amerika hemen dugu, dudik gabe. Hango ardiaren asuntua akitu da. Tarteka joaten gara, anaiak bisitatzen

eta lehengo tokiak ikustera eta pena ematen du. Ardi-talderen bat edo bertze ikusten duzu, baina ez da deus ere.

Ameriketako bitxikeriren bat gogoan duzu?

Jatekoa lurpean egiten genuen, bertzerik ez baigenuen. Lurraren berotasuna aprobetxatzen genuen. Ogiak gain, ilarrak eta gisadoak horrelaxe egiten genituen. Bertze ohitura, whisky hartzea zen, Seven Upekin nahasi eta “medizina” egiten genuen.

zen aitzindaria. «Ardi eta arimen artzaia» kapitulua merezi du liburuan Benta Berriko Juan Miguel “Mike” Apeztegia Juankorenak. 1965ean joan zen eta gaur egun Wyoming estatuko mormoien gotzaia da.

NESTOR BASTERRETXEIA ETA ARTZAINEI ESKAINITAKO IRUDIAK

Azken hogeitau urteotan ospatu den maiatzaren 1eko amerikanoen bestari eskainitako orrialdeen ondotik, artzainei egindako monumentoak aztertzen ditu liburuak. Horietatik bi Nestor Basterretxeak eskultoreak eginak dira, Renon eta Oñatin. Nestor Basterretxea izan da hain zuzen, aurtengo maiatzaren 1eko ospakizuneko ohorezko gonbidatua. Izan ere, artzainei eskainitako bi lan hauetatik gain, Sunbillako zubiari eskainitako bertze bat ere jarria omen du Valentziako Unibertsitateko kanpusean.

Liburuaren hirugarren zatian, hainbat dokumentu eta datu agertzen dira: toki izenen zerrenda, mapak, artzainen izenak, etxeak eta nora joan ziren... bidaiak, kontuak, argazkiak eta bertze. Artzain Mundua Fundazioak eta Sunbillako Udalak urtarrean sinatu zuten hitzarmena ere ageri da. Jesus Goldaraz, Doneztebeko apezka ez ezik filologoa ere bada, eta Sunbillako artzainek erabiltzen dituzten ehun hitz baino gehiago bildu ditu hiztegi hautatuan, euskara batuko erranahiarekin eta gaztelerako itzulpenarekin. Horien artean bereziak, “Doldia” hitza iruditu zaiola adierazi digu Goldarazek, ez baitzuen inoiz aditua. Paralisia edo perlesia erran nahi du.

JOATEKO TXARTELA HARTZERAKOAN BUELTAKOAK ORDAINDU

Argi dago beharrak bultzatzen duela sorterrria utzi eta bizimodua ateratzeko kanpora joatera. Fermin Zelaieta 1958an joan zen Ameriketara. Urtebete lehena go bederatzia hilabetez Hueskan aritu zen lanean: «*lana gogoregin, gutti irabazi, gaizki jan... Ameriketara bagenituen lagunak eta hango berri ematen ziguten: haragi nahikoa, bakarrak egon behar zenuen baina lana erraza, hiru aldiz gehiago irabazi... Ez genuen aunitz pentsatu behar izan*». Juan Luis Alzugarai berrikiago joan zen, 1982an, hau ere lan bila: «*Gure tenorea ere txarra zen. Lesakan ez zuten fabrika hartzen dagoeneko eta lan aldetik ez zen martxa soberra. Harata joan nintzen abentura gisara*».

Egiako abentura zen horrelako bidaia egitea sunbildar hauentzat eta merkantzia hutsa zirela uste du Fermin Zelaietak: «*Gu paketeak ginen, paparrean gure txartelarekin joaten ginen. Harat ailegatu eta lau orduz ailegatu egon nintzen esperoan, inor ez zen*

agertzen. Halako batean, beltz haundi bat azaldu zen, txartela begiratu eta Coca-Cola bat eman zidan. Handik guttira bi emakume etorri ziren, bat nagusiaren arreba eta galdetu zidan: “Euskalduna zira?”. Hura aditu nuenean, niri ateak zabaldu zitzaizkidan».

Jose Mari Arretxeak ere ongi gogoratzen du Ameriketara ailegatu zen eguna, 1965eko maiatzaren lehenean: «*Aireportura ailegatu eta gizon adintu bat etorri zitzaidan erranez, “Zerdiozu? Auzotarrak gara” erranez*».

1916an joandako sunbildar bat zen. Horrek bihotza hunkitu zidan». Etxegiakoak gogoratzen duenez, joateko txartela hartzerakoan bueltakoa ere ordaindu behar izan zuten, inoiz itzuliko ziren ez bazekiten ere: «*Modu batean edo bertzean ez baginen ongi portatzen edo aspertuko ote ginen beldurrez, harata kobratu eta segidan honata ere kobratzen ziguten. Hilabetean 225 dolar irabazten genituen eta 295 kendu ziguten, bueltakoa ordaintzeko, hila-bete terdiko jorjala*».



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitez Mindegia, Franck Doloisor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetiitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odrozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

| | |
|----------------------------------------|-------|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizua | 25 € |



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Elbeteko Askaren gaineko informazio eskasa

Nahiz eta Ttipi-ttapa-aren izenean 2006ko apirilaren 13ko alean idatzita dagoen artikuluan Baztango Udalaren kontra gogorki jo, zuengana hurbiltzen naiz. Gamioko nagusia naizen neurrian, ustez eta Elbeteko askaren gainean ematen den informazioa zuzena ez den eta kontrastatu ez du zuzena osatu nahian.

Hasteko ez da Gamioko aska, izenburuak dioen bezala, Elbeteko aska baizik. Oraindik ez ditu bete bertan aipatzen diren 80 urte, herritar aunitzek oraindik gogoan duten bezala, 60 bat bertzerik ez ditu.

Lehenagotik ondoko etxearen parean zegoen Karrikatxarreko aska hau, honekin batera igortzen dizuedan irudi ederrean agertzen den gisara, Etxenike margolari baztandarraren lana. Orduan Gamioko nagusia zenak herriko eskaintza onartu eta bere larrainaren **kanpoko aldean** jartzea onartu zuen, denon onerako zelakoan. Aska hura bai ederra, harrizkoa eta urte aunitzekoa, non ote daude aska haren hariak?

Artikuluak dio Udalak askaren moldatzea dagoeneko onartu egin duela, eta hori ez da egia, ez baita oraindik Baztango Gobernu Batzordearen eskutik pasa ere egin eskaera, are gutxiago horretarako beharrezkoa den obra-lizentzia ere luzatu. Onartu izan den gauza bakarra askaren desafek-



tazioa izan da, eta ez erraten duzuen bezala *urriaren 21ean*, 2006ko martxoaren 17an egin dako osoko bilkuran baizik (ikus akta publikoak).

Gamioko nagusi honen eskaera ez zuen *iaz* luzatu, bi urte t'ardi dira dagoeneko, nire esku-bidea baita etxeko sarrera nire gustura moldatzea, nahiz eta artikuluan agertzen duzuen bezala batzuek *kapritxo*

hutsa dela uste, eta behin eta berriz aipatzen duzuen *kotxearen sarrera* hobetzea ez da nire asmoa izan, larraineko sarrera etxeko sarrera nagusiarekin parakatzea baizik.

Herriko Batzarrea aipatzen duzue, eta ez zen bakarria egin, ez, bi bilera burutu eta gero edozein herritarren modura administrazioaren ezezkoren arrazoiak jakin nahian eta oraindik eran-

tzuna hartu gabe nago. Arrazoi bakarra zuek agertu bezala *"barrideen arteko liskarrak"*, baina hau ez zuen EAKo zinegotzi batek erran, Elbeteko Alkate-Juradoak Batzarreko akta-liburuaren 11. orrialdean idatzi egin zuen, idazkariak aitzineko bi batzarretan gertatutakoa behar bezala ez agertu eta akatsa zuzendu nahian.

Planteatzeko asmoa dudan moldaketarekin aska bere horretan geldituko da, harriz forratua, ura galdu gabe eta erabilpen publikorako. Hasieratik izan diren gaizki ulertuak argitu eta guztion onerako.

Santiago Juanikotena
Oskariz.
Gamioa, Elbete.

EUSKAL TONBOLA 1€

DUDak, kamera digitalak, DVD sortak, MP3 irakurgailuak, mobilak, Rteburuak landetxetan, Krüzero bidaiak

...eta ehunka sari gehiago!

Denak Nafarroako tabernetan

KONTSEILUA

EROSKI bidaiak, berritza, IITZA, EROSKI

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA 2006-04-19

«Nafarroako mendiak onak direla uste dute gehienek, baina egitan ez da horrela. Erakusle bezala, kalitatezko zuraren Nafarroako transformazio industriek egurraren %95a inportatu behar izaten dute, Frantzia, Alemania eta bertze herrialdeetatik. Zergatik dute Euskal Herriko berezko oihanek hain kalitate kaxkarra? Gehien bat, aitzineko mendeetan gizakiak eman dien erabileragatik, ikatza eta trenbideko trabiesak egiteko asko erabili baitira».

Igor ERBITI SAIZAR
Leitzako aditua
Gara 2006-04-19

«Desesperatzen hasia naiz eta buruari buelta asko ematen diot. Azken urteetan eskuak baldintzatzen nau pilotan jokatzeko orduan. Ebaketarekin eskuin eskuko lesioaz ahaztuko nintzela uste nuen, baina buruz buruko partidetan, bortxatzen dudanean, sufritu egiten dut eta %100ean ez dagoela somatzen dut. Bi hilabete bakarrik pasatu dira berriz agertu nintzenetik eta denborarekin ongi jarriko dela, hori da orain nere itxaropena».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
D.Noticias 2006-04-20

• 11 GALDERA LABUR •

Zure lehenbiziko pelikula profesionala grabatu duzu. Nolako esperientzia da?
Ona, errepikatzeko modukoa.

Antzerkian ere ibilia zara. Antzerkia edo zinearekin gelditzen zara?
Nik nahiago dut antzerkia. Pelikula batean horrenbertze aldiz errepikatzen duzu eszena bera freskotasuna galtzen duzula.

Argiak, kamerak, akzioa! Zer sentitzen duzu barrenean?
Nik urduritasuna, erabat urduria naitzelako. Errespetoa.

Estreinoaren egunean, alfonbra gorritik pasatuko zara?
Egia errateko, protagonistaren amarekin harreman ona izan dut eta elkarrekin joateko gelditu gara.

Flashak, autografoak... Famak erakartzen zaitu?
Gauzak ongi egiteak erakartzen nau eta jendeak hori txalotzea. Fama eta farandula ez zaizkit gustatzen. Gai netik ikusi dut eta oso gogorra da.

Goya, Oscar... Horrelako sariekin amets egiten duzu?
Ileapaindegira gan nintzelarik kaxondeoa izan zen eta Hollywoodera gateko ingelesa ez dakidala erantzuten nien. Hau hobby bat bezala hartzen dut.

Gehien gustatzen zaizkizun aktore eta filma?
«El jardinero fiel» aunitz gustatu zitzaidan. Ez zaizkit Hollywoodeko pe-

likula handi horiek gustatzen. Susan Sarandon eta Espainian Candela Peña gustatzen zaizkit, baina ez dago errekonozitua.

Gaur egun aktore aunitz telebista serietan famatzen dira... Bakarren bat gustatzen zaizu?

Cuatron «Los simuladores» ikusten hasi naiz, denbora pasatzeko. Sofan jarri eta gauza errezak ikusten dituzu.

Drama, komedia, pelikula erromantikoa, beldurrezkoak... zer genero duzu gogokoena?

Genero soziala eta dramak gustatzen zaizkit, gehien betetzen didatenak dira.

Bizitza errealeko zein pertsonai interpretatzea gustatuko litzazuke?

Uff... Monologoa egitea gustatuko litzaidake eta jendea historian sartzea, negar eta irri egiteko gogoa sartzea.

Amodiozko eszena berror bat, zein aktorekin egingen zenuke?

Eduardo

No-riega-rekin, dudarik gabe.



Mirentxu GOIENETXE
Amairko aktorea

BEINTZAKO OSTATUA
948 45 00 14
ORBELA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

Xirail
948 631462
Alzate 1 - BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

PAGOLA EMBUTIDOS
artesanos desde 1940
Alzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Jose I. Gonzalez Enguita
Pintura lanak
Bidasoa 40 - 1. era
31780 BERA

LANA

Baztan-Bidasoako Ostalaritza tailerreko ikasleak hartuko dituzte bortz enpresak

Sei hilabetez, hamabortz ikasle arituko dira tailer horretan

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuaren Enplegu Zerbitzuak, Cederna-Garalur erakundeak eta Baztan-Bidasoa aldeko ostalaritza arloko bortz enpresak elkarlan hitzarmenak sinatu zituzten apirileko lehen astean. Hitzarmen hauen arabera, enpresa hauek, Baztan-Bidasoako ostalaritza enplegu tailerreko ikasleak kontratatuko dituzte hurrengo langile aukeraketan. Konpromiso hau hartu zuten, 25 urtez goitiko eskualdeko hamabortz langabetu hartuko dituen tailerra ezagutu ondotik. Hamabortz ikasle hauetatik 13 emakume eta bi gizaseme izanen dira eta sei hilabetez ikasten arituko dira, batez ere aperitiboan eta bazkarien prestakuntza espezializatuan.

Zehazki, Elgorriagako Balnearioa, Berako Churrut hotela, Etxalarako Benta hotela, Iturenego Herriko Ostalua eta Baztan kanpina dira eki-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Bidasoako Ostalaritza enplegu tailerraren aurkezpena.

men honekin bat egin duten enpresak. Tailerraren aurkezpenean,

eskualdeko enpresek duten langile kualifikatuen beharraz aritu zi-

ren, eta horregatik begionez ikusi dute Baztan, Bera, Elgorriaga eta Le-

sakako udalek lagundu duten tailer hau. Izan ere, Baztan-Bidasoa aldean egin den lehenbiziko tailerra izan da. Nafarroako Gobernuaren Enplegu Zerbitzuak 132.411,60 euro jarritu, aurrekontuaren %88a.

SEKTOREKO LAN ESKAINTZA GOITI

Enplegu tailer hauen helburua, 25 urtez goitiko langabetuei lan munduan sartzeko erraztasunak ematea da. Horretarako, sei hilabetez formakuntza profesionala eta praktikoak jasotzen dute ikasleek. Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malekrekako langabeziaren azterketa egin ondotik, ostalaritza sektorerako profesionalen beharra somatu zen. Sektore honetan lan eskaintzea handitzea espero da, Elgorriagako Balnearioa irekitzen denean eta eskualdeko hotelek eta ostaluetuek horrela eskatzen dutelako.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tel: 948 630 315 - 467 406 781

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Altoño, 5 - Tel: 948 630 089

MERTZERIA
Leño
LENTZERIA
Tel: 948 627 514
Bentako Plaza, 10 - LESANA

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktuenak
Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

bortz IRUDI
bortzirudi@telefonica.net
KARTELAK - KANSETAK - BIZARRA - TOSKATRIKAK (Beltz duzun osari - ditamarrikak)
FOTOKOPIA DIGITALAK - BUKURTEAK - TOSKI BILTZEAK - PLANGAK
ENKADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPELUTUA - BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPOAK - ERROTILAK - IMPRENTA
Eztegara, 76 - Eztegarako Benta II - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

BERA
Zera inguruak klase garietako inlektuz
(xanorra, zinzorra, ormarra, kukuza...)
eta orratzi zuzentze garbitu nahiz bodeza,
daitel Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 507 • Zulueta, 42 A • BERA

BERA

«Larun Haitzpe» komertzianteen elkarteak jendaurrean aurkeztu da

Momentuz berrogeita sei bazkidek osatzen dute elkarteak

Amaia eta Ainhoa

Apirilaren 25ean Berako komertziantek sortutako elkartearen aurkezpena egin zen Churrut Hotelean. Larun Haitzpe izena hartuko du Berako ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu emaileen elkarteak. Elkartearen estatutu eta kudeaketaz arduratuko den batzordea aurkeztu zuten. Lehendakaria Iñaki Sese izanen da eta batzordeko gainerako kideak Julio Salinas, Martin Goikoetxea, M^a Ascen Astondoa, Mertxe Artieda, Igancio Soroa, Xabier Sarasola, Javier Leiza eta Jose Luis Irigoien. Momentuz 46 bazkidek osatzen dute elkarteak.

Finantziarioari dagokionez, bazkide bakoitzak urteko 60 euro ordainduko du eta kopuru honen zati bat Nafarroako Merkataritza Federazioarentzako izanen da. Elkartearen helburua aurrerapausu kualitatiboa ematea da eta konpetentziaren aintzinean berrikuntzan, profesionaltasunean eta formakuntzan irabaztea da, baina herriko dena tikien izaera mantenduz. Bezeroei tratu berezia ematea hagitz



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Larun Haitzpe elkarteak zuzendaritza batzordea: Julio Salinas, Martin Goikoetxea, Iñaki Sese presidentea, Maria Ascension Astondoa, Mertxe Artieda, Ignacio Soroa eta Xabier Sarasola. Javier Leiza eta Jose Luis Irigoien falta dira argazkian.

garrantzitsua da berriantzat. Bertalde, elkartearen logotipoa diseinatuzko, duela bi hilabete lehiaketa deialdia zabaldu zuten. Irabazlea Ibai Perez izan da eta honi esker 300 euroko saria eraman du. Hemendik aintzinerarak egindako logotipoa elkartearen zigilua izanen da.

Landetxeentzat Aste Santua bikaina izan da

Apirilaren 10etik 23ra

idekia egon da aurten Turismo Bulegoa eta guztira ia 600 lagun pasatu dira hamabortz egunetan, joan den urtean baino %12 gehiago. Pasatu berri den hau, azken urteotako Aste Santurik onena izan da. Berako Turismo bulegotik 580 lagun pasatu dira 14 egunetan, banaz berte 41 pertsona eguneko. Landetxe eta alojamendu guztien okupazioa ia erabatekoa izan da. 2004. urtetik hona %15 hazi

da Aste Santuko bisitarien kopurua. Bisitarien jatorriari dagokionean, Bizkaitik etorritakoak izan dira nagusi (bisitarien %18,79), nafarrak izan dira kopurutan bigarren (%14,13), gipuzkoarren (%11,72), madrildarren (%11,2) eta Bartzelonako (%11,2) aitzinetik. Madrildik datozen bisitarien kopurua haunditu da gehien bat, iaz baino %80,55 gehiago, eta Kataluniatik datozenak ondoren (%41,3).

Musika argitaratzeko laguntza deialdia

Kultur Batzordeak, Ertz elkartearen laguntzarekin, Beran musika argitalpenarako dirulaguntza deialdia egin du. Dirulaguntzen bidez Beran ekoiztutako musika argitalpenak bultzatu nahi dira edota lan berriak sortzeko bultzada eman nahi da. Musika munduan aritzen den Berako edozein pertsona, elkarte edo entitatek parte hartu dezake. Berakoak ez diren elkarteak aurkeztuz gero, kideetako bi herenak bertan bizi beharko dute guttienez 2006ko urtarrilaren 1etik aintzinerara. Guztira 1.500 euro banatuko dira eta proiektu bakoitzari ez zaio kostuaren %70 baino gehiago emanen. Dirulaguntzak jasotzeko eskari-orriak udal bulegotan bildu daitezke eta dokumentazio guztia ekainaren 2a baino lehen aurkeztu beharko da. Edozein zalantza edo argibide gehiago behar izanez gero, Raul Iglesias kultur koordinatzailearekin harremanean jarri 948 631222ra deituz edo kultura@berakoudala.net helbidera idatziz.

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Eguneroko menua eta antzerkian menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

SAROB SANDERS pentsuak
okindegia
Etegarra, 41 - Tel: 948 630 939 - BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESACA

7,1 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak EAJ-Earen aldeko botuekin

Oninek kontrako botua eman du «zenbait inbertsio batzordeetatik pasatu ez direlako»

Aitor AROTZENA

Udalak 7.113.780 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, azken batzarrean EAJ-Earen aldeko botuekin eta Oninen kontratuekin onartutako aurrekontuaren arabera. Kultur Etxea, igerileku estalia, Eskriboneako lokalak eta Hirurteko Azpiegitura lanetan onartutako hainbat obrei ekinen zaiela kontuan hartuz, historiako aurrekonturik handiena izanen du herriak. Andra Mari Zahar Etxearen aurrekontua, berriz, 484.440 eurokoa izanen da, diru sarreretan eta irteeretan berdindua.

Aipatu bezala, Oninek kontrako botua eman zuen. Deñe Abuin zinegotziak aipatu digunez, «zenbait diruatal batzordeetatik pasatu gabe zuzenean aurrekontuetan sartuak ziren eta zenbait kontzepturekin ez geuden ados. Horregatik mahai gainean uztea eskatu genuen hobekiago aztertzeke, baina ez zen

onartu eta kontra bozkatu genuen». Juan Fermín Mitxelena alkatearen erranetan, aldiz, «aurrekontuaren onarpena aitzintzea eskatu ziguten, Onineko zinegotzi batzuk opor hartu behar zutelako. Hori egin eta gero, aztertzeke denborarik ez zutela erran zuten». Alkatearen ustez, «heldu den urtean hauteskundeak dira eta horrek eragina izanen du. Pena da horrelako obrak dituen aurrekontua den artean aitzinera ez ateratzea». Lan horien artean handiena igerileku estalia egitea da, 1.700.000 euroko aurrekontuarekin. Lanen ondorioz, uda honetan ez da igerilekurik izanen eta egoera horri soluzio ezberdina eman nahi zioten bi udal taldeek. Azkenean, Igantzi eta Berara autobusak aterako dira goizarratsaldez, 18.000 euroko aurrekontuarekin. Oninen ustez, «Kristo Enean igerileku txukuna egin zitekeen 42.000 euro eskaxekin».



ARGAZKIA: AITOR

Erdi Aroko Azoka arrakastatsua aurten ere

Hainbat bisitari erakarri zituen aurten ere herrira Erdi Aroko III. Azokak. Bezperan eskainitako «Zabaleta Dorreko Dama» antzezlanaekin abiatu eta Feria eguneko ekitaldi ugariekin izan zuen segida: karrika antzerkia, hegaztien erakustaldia, eskulan tailerrak, haurrentako aitzinako jokoak eta hainbat postuetan ikusten eta erosten aritzeko modua eskaini zen. Ederra!

Udal igerileku estalia ortzira leian aurkeztuko da

Igerileku estaliaren lanak aitzinera doaz eta Udalak instalazio berria nolako izanen den erakutsi nahi du. Horretarako aurkezpena eginen da maiatzaren 5ean pleno aretoan 19:00etan. Leku berean, maiatzaren 8tik aitzinera, astelehenetik ortziralera erakusketa iraukorra eginen da, 10:00etatik 20:00etara. Abudo, instalazioaren logotipo lehiaketa eginen da eta gizarte eragile eta elkarteei informazioa emanen zaie.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Itxura hau hartuko du udal igerileku estaliak, kanpotik eta barnetik.

TOAILAK-MANTELEAK-OHEKO MAINDREAK
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusak
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzen ditugu

Elerni Plz. Berriz 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 460 - 689 481

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESACA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaca (Nafarroa)

GOZZ-AIDO

MAINTENIMENDU

MAINTENIMENDU

ETXALAR

Herriko hameka erakundek Bai Euskarari Ziurtagiria jaso dute

Arrakasta handiz burutu zen Usategietako IX. auto igoera

Joseba eta Nerea

Joan den apirilaren 22an Bortzirietako Bai Euskarari Akordioaren ekitaldia egin zen Beran, aurten bigarren urtez. Euskararen normalizazioa lortzeko konpromisoak hartu zituzten eskualdeko entitateei Bai Euskara Ziurtagiria banatu zitzaizen Kultur Etxean burutu zen ekitaldian. Horien artean Etxalarko hainbat elkarte, landa etxe, ostatu eta denda egon ziren. Guztira herriko 11 entitatek jaso zuten Bai Euskarari Ziurtagiria: Aldalurberea landa etxeak, Altxata Kultur Elkartek, Elutsa Ostatuak, Iturria Etxeak, Landaburuak, Landagain Eskolak, Maria Eugenia Sagardoi farmaziak, Herriko Ostatuak, panaderiak, Mikelestonea landa etxeak eta Usoa nekazari kooperatibak. Berako ekitaldian denak egon ez baziren ere, ordezkaritza polita juntatu zen argazkian ikus daitekeen gisan.



ARGAZKIA: OSKAR GOÑI

Etxalarren Bai Euskarari Ziurtagiria jaso duten hainbat entitate eta euskalgin-tzako ordezkari, Xabier Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusiarekin batera. Beran apirilaren 22an egin zen ekitaldian bildu ziren guztiak.

Arrakasta handia Usategietako Auto Igoeran

Eguraldi bikaina, jende multzo ikaragarria eta giro ederra. Horrelaxe laburbilduko genuke Usategietako auto igoera. Apirilaren 9an egin zen Eguzki Sport eskuderiak 11. aldiz antola-

tutako igoera eta urtero bezala erabateko arrakasta izan zuen. Goizetik jende multzo handia hurbildu zen Usategietako bide bazterretara. Auto igoeran ez zen aparteko istripurik izan eta ezbeharririk gabe atera zen guztia.

50 bat auto gidaririk parte hartu zuten Nafa-

rroako Mendi lehiaketarako puntuagarria zen Usategietako Igoeran. Berriki hildako Jon Oskoz Etxandi auto gidariaren oroimenean antolatu zen igoera eta autoguztiek pegatinak eraman zituzten lazo beltzekin. Oskozen familiarik plaka bat ere jaso zuen bere oroimenean.

Lau haur bataiatu dituzte

Apirilaren 10ean, Bazko igandea, egin ziren aurtengo lehenbiziko bataioak. Lau haur bataiatu ziren: Tomaseneko Eider Indaburu Loidi, Ibaiondoko Xuban Gastiarena Irisarri, Goiz Argiko Aimar Aginagalde Iparragirre eta Iker Iparragirre Iriarte.

Irabazlea Gorka Apalantza gipuzkoarra izan zen. Bigarren postuan Pantxo Egozkue gelditu zen eta hirugarren Chistian Villar. David Cano izan zen helmugara ailegatzea lortu zuen junior bakarra.

Inguruko auto gidarien artean Patxi Gateu beratarra izan zen hoberena 26. postua lortuz. Martin Villares urdazubiarrak 29. postua eskuratu zuen. Andoni Blas doneztebarrak ez zuen ibilbidea bukatu, autoa bidetik kanpora atera zitzaielako. Aitzineko ediziotan marka onak egin dituzten herriko auto gidariak berri, ez genituen igoeran ikusi. Pena hori gelditu zitzaizen Etxalarko auto zaleei.

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Munterola
Itxarola
Itxarola • gura • kalafakia
c. 629 449087
Itxarola 4, behe • BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behe • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERREKALDE

OSTATUA
PLATER KONBINATIONAK
PINTXOAK
BONATIK

Tel: 948 635 214 • BERA

ARANTZA

Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 21ean egingen da

Ekaitza Elkarteak eta Gazte Asanbladak antolatu dute ibilaldia

Nerea ALTZURI

Gero eta guttiago galditzen da Arantzako hirugarren mendi itzulia egingen den egunerako. Aranztar eta bertakoak ez diren mendizale aunitzen hitzordua maiatzaren 21a izanen da. Ekaitza Elkartea eta Gazte Asanblada, berze edizioetan bezala, azken xehetasunak lotzen ari dira. Aspaldixkotik kamiseta koloretsuak ikusi eta erosi ditugu gutariko aunitzek, herriko ostatueta salgai izan badaudelako.

Herriko plazatik abiatu eta leku berean akabera emanen zaio ongi eta egoki seinalizaturiko ibilbideari. Bitartean, Arrata errekatik jautsiz, Aranibar baserria, Unanu, Itsaszelai, Izu, Oirlargata, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mairubaratzeta eta Zepuruko tontorrak

pasatuko dituzte ibiltariak. Guzira hogeitar kilometroko itzulia izanen da eta Ternidara edo Mendaurrera joateko hautua egingen dutenek kilometro pare bat gehiago egingen dute. Ohikoa den legez, ibilbidean hornidura eta osasun zerbitzuak eskeintzeko postuak izanen dira.

Ibilbidean parte hartzeko izen-ematea goizeko 6:30etatik 8:00etara egingen da eta zortzi euro ordainduko ditutaide bakoitzak. Informazio gehiago, www.arantza.net-en edo 617 23 93 61 eta 647 75 91 40 telefonoetan eskura dezakezu.

Dudarik ez dago, eguraldi garbia izanez gero ibilbide osoak eta Arantzako Zirkua eskeintzen dituzten paraje ederrak begibistan izanen direla.



ARGAZKIA: JOXE RAMON AMOROS

Jakin badakizuen moduan, Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartu dute aurten ere aranztarrek. Joan den apirilaren 9an, final nagusia izan zen Burlatan. Haur mailako proba konbinatuan Arantzako taldea hirugarren izan da sailkapenean. Kadete mailan bigarren gelditu dira arantzarrak. Modu berean, Arantza eta NARBARTeko taldea hirugarren izan da sokatiran.

Bai Euskarari Ziurtagiria

Herriko denda, komertzio eta erakunde hauek hartu dute aurten Kontseiluak eman dako ziurtagiria: Aldapa

papertegi-estankoa, Arantzako Aterpea, Blanka ileapaindegia, Bortzak Bat kooperatiba, Burlada ostatu-jate-txea, Ekaitza elkarte, Goienburu iturgintza,

Ilargi okindegia, Pablo-enea ostatu-jatetxea, Telleri landetxea eta Zahar Txokoa jubilatuen elkarte. Apirilaren 22an egin zen ziurtagiri bataketa Beran.

Mussia
HIDROERENTZIA
HIDROSEHARRA
FERROBACTERIA
LARRALDIA

LEGARRA
BERRIKUNTZA
oposizioak prestatzeko
liburuak ekartzen ditugu
Egunero irekia
Tel-Faxa: 948 637 030 - Albistur, 9 - LESAKA

IRU BIDE
Iturri - Avakia
Bilaka 10/11, 3 - LESAKA
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
JATETXEA
Tel: 948 637 027 - LESAKA

ZJ
Zalain
jate-txea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
E. Zabalza 10 • Tel. 948 63 78 67
Bera - Najarroa

IGANTZI



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Bortzietako gaineko herri guzietan bezalaxe, bertso-poteoa izan zen Igantzin apirilaren 8an. Herrian sortu berri den bertso eskolako ikasleak (Janire, Maria, Ane, Adur Iker eta Unai) Lesakatik etorritako loar Tainta, Josu Sanjurjo, Egoitz Telletxea eta Estitxu Arozena aritu ziren kantari. Bakoitza bere mailan ederki ari direla erakutsi ziguten.



Igantziarrak Belateko finalean

Belate Elkarteak antolatzen duen Nafarroako Elkarten arteko txapelketaren finalean izan ditugu Igantziko pilotariak. Otsagin jokatu ziren apirilaren 8an goizez eta bi pilotarik lortu zuten garaipena: Peio Migelenak irabazi zuen Harri Maritorea beratarrekin bigarren mailako aurrebenjaminetako finala eta Unai Telletxeak lehenbiziko mailako benjaminetakoa, Gorka Sanjurjo lesakarrarekin (Joseba Aldabe zen aritzekoa baina min hartua zuen txapelketan). Arkaitz Retegi, Eneko Telletxea eta Beñat Txoperenak ez zuten zortetik izan eta euren finalak galdu egin zituzten. Saillapenean 7.a izan da Biltoki Elkarte.

Hasiak dira dagoeneko Eskolzar moldatzeko lanak

Lesakako Sarobe Anaiak enpresak eginen ditu lanak

Oskar TXOPERENA

Sarobe Anaiak enpresa lesakarra izan da Eskolzar moldatzeko egin den hirugarren enkantean eskaintza aurkeztu duen bakarra. Udalak berari eman dio lana eta hasiak dira dagoeneko etxea hustu-

tzeko lanetan. Hamar hilabeteko epea daukate lanak akautzeko.

Obrak hasi izanak aitzinetik aurreikusia zegoen arazoa sortu du gaztetxoaren artean. Izan ere, Biltoki ttiki Elkarte etxe honen beheko solairuan zegoen, Nafarroako Kutxaren bulego zaharrean, eta bazkideak bertatik atera behar izan dute obrak hasi bezain abudo. Biltokira eraman dute gaita eta Herriko Etxearekin harremanetan jartzeko asmoa daukate gaiari irtenbidea bilatzeko.



Biltoki Ttiki elkartekoek beheko solairuan zuten egoitza atera behar izan dute.



KULTURA

Udaberriko Bira gure ingurura ere ailegatu da

Antzerkia, zinea eta musika izanen da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Departamentuak duen Udaberriko Bira apirilaren 22an abiatu eta ekainaren 26ra arte eginen da. Ekimen honekin, 200 eta 1.000 biztanle artean dituzten Nafarroako 71 herrietara ekitaldi artistiko eta kulturalak ailegatuko dira. Eskualdeari dagokionez, Arantza, Areso, Beintza-Labaien, Donamaria, Igantzi, NARBARTE eta Zugarramurdira ailegatuko dira ekitaldiak. Baina kultura hartu ez ezik esportatu ere eginen dugu eta Baztango dantzariak, Lesakako musika bandak edo aurten hamar urte egin dituen Doneztebeko Mendi abesbatzak beraien

emanaldiak eskainiko dituzte herriz herri.

Hasteko, apirilaren 22an, Aresoko udal txean antzerkia izan zuten. Pasadas las cuatro taldeak «Ateak edonon sortzen direnean» antzezlan eskaini zuen. Egun berean, aurten hamar urte egin dituen Doneztebeko Mendi Abesbatzak emanaldia eskaini zuen Berbinzana-ko elizan.

Hurrengo asteburuan, apirilaren 29an, Igantzi-ko Baratxondoa Zahar Etxean eskaini zuen Pasadas las cuatro taldeak «Ateak edonon sortzen direnean» antzezlan.

ANTZERKIA, ZINEA ETA MUSIKA

Egia errateko, eskaintza ez da hagitz za-

bala izanen gure eskualdean, antzezlan hau bertze hiru herrietan ere ikusiko baita datozen asteetan: Donamariako frontoian maiatzaren 13an, 19:45etan; Zugarramurdira ospital zaharrean, maiatzaren 20an, 18:30etan eta hilaren 21ean NARBARTEko plazan, 18:00etan.

Maiatzaren 20an, Beintza-Labaiengo elizan «Txoritxoak» pelikula eskainiko da elizan 20:30etan. Azkenik, ekainaren 25ean, Lesakako musika bandak emanaldia eskainiko du Arantzako plazan eguerdian.

Baztango dantza taldeari dagokionez, Liedenako frontoian eskainiko du bere emanaldia ekainaren 17an, 17:30etan.



ARTXIBOKOA

Azken urteetan baino herria guttiagotara ailegatuko da aurten Udaberriko Bira. Halere, Nafarroako 71 herritara eta eskualdeko 7ra iristen hasiak dira ikuskizunak.

IRU BIDE
Estrategia - Asakia
Bisitak 3. Lesaka
Tel: 948 637 127

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 027 - LESAKA

ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458

ZJ
Zalain
jatetxea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
Bera - Nafarroa

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz egindak
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitatesik
- IVA eta IRPF
- Erenta altopenak
- Ebarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun plansk eta aurrekontuak

artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713

Ginko
M. Karmele Tolosa
Baztango dantzak
Baztango dantzak
Baztango dantzak
31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak:
817 350 025 - 867 694 847
E-posta: ginko@etxalar.es

BORTZIRIAK

139 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu ziren Beran

Apirilaren 22an egin zen ekitaldia Kultur Etxean

ttipi-ttapa

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa egin zien apirilaren 22an Bortzirietako hainbat enpresa saltoki eta era guztietako entitateri. Bertan, Kontseiluko idazkari nagusia, eskualdeko euskalgintzaren ordezkaria, udalen bozeramalea eta Bai Euskarari Ziurtagiria duen enpresa bateko ordezkaria elkartu ziren. «Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua osatzen dugunontzat honelako egunak pozgarriak dira, duela sei urte abian jarri genuen Bai Euskarari Akordioa, garatzen ari dela eta fruituak ematen dituela ikusten baitugu», adierazi zuen Xabier Mendiguren idazkari nagusiak.

Ekitaldi honetan Bortzirietan euskararen normalizazioa lortzeko konpromisoak hartu dituzten eragileek Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dute. Guztira, 139 entitatek lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria Bortzirietan eta 33 entitate berriak jaso dute lehen aldiz. «Euskara bizitzako arlo desberdin askotan normaltasunez ikusi eta entzutea lortzen ari dira. Bai Euskarari Ziurtagiriak balio beza konpromiso hori bideratu eta gizartearen aurrean harro azaltzeko» azpimarratu du Mendigurenek.

Euskararen normalizazioaren aldeko prozesuan instituzioek parte hartzearen garrantzia azpimarratu dute. «Bortzirietako udalek gizarpromisoa hartu duzuen erakundeek eutsi egin behar diozue horri, konpromiso bidean daudenek urratsak eman behar dituzte, eta oraindik konpromisorik hartu ez dutenengana ere iritsi egin behar dugu», ohar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Paella txapelketan irabazle suertatu zen «Espentza» taldekoak.

tarazi du Mentxu Peñak, eskualdeko euskalgintzako ordezkariak.

Euskararen normalizazioaren aldeko prozesuan instituzioek parte hartzearen garrantzia azpimarratu dute. «Bortzirietako udalek gizarpromisoa hartu duzuen erakundeek eutsi egin behar diozue horri, konpromiso bidean daudenek urratsak eman behar dituzte, eta oraindik konpromisorik hartu ez dutenengana ere iritsi egin behar dugu», ohar-

tarazi du Mentxu Peñak, eskualdeko euskalgintzako ordezkariak.

Euskararen normalizazioaren aldeko prozesuan instituzioek parte hartzearen garrantzia azpimarratu dute. «Bortzirietako udalek gizarpromisoa hartu duzuen erakundeek eutsi egin behar diozue horri, konpromiso bidean daudenek urratsak eman behar dituzte, eta oraindik konpromisorik hartu ez dutenengana ere iritsi egin behar dugu», ohar-

Urdibera Kirol Zerbitzuetako Leire Portu, Bai Euskarari Ziurtagiria duen enpresen ordezkari gisa aritu zen: «Konpromisoak hartu ditugun erakundeok bidea irekitzen ari gara bertze batzuek urrats beretatik aurrera joan daitezten». Bere ustez, Bortzirietan eta Euskal Herri osoan euskaraz bizi, ikasi, lan egin, erosi, irakurri, informatu eta abar egitea gero eta «errazago» izanen da denon artean ari-tuz gero.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak
edredoi-azal nordikoak • ohe estalkiak
maindireak • kuxinak • toailak

UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA



BERTIZARANA

Narbarteko zeharbidea moldatzea 1,4 milioi euro gostako da

Kontzejuak 130.843 euro ordainduko ditu eta Udalak 33.047 euro

ttipi-ttapa

Narbarteko zeharbidea moldatzeko lanek kasik 1,4 milioi euroko aurrekontua izanen dute. Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako departamentuak 554.056 euro ordainduko ditu, Toki Administrazio departamentuak 676.299 euro, Bertizaranako Udalak 33.047 euro eta Narbarteko kontzejuak 130.843 euro. Lan hau, sareak berritzeko eta zeharbidea eta bertze karrikak zolaberritzeko Hirurteko Planean onartutako proiektuaren zati bat da.

Zeharbideak 620 metroko luzera du eta garai bateko N-121-A errepidea Narbartetik pasatzen deneko zatia hartzen du. Urteetan egin diren zolaberritze lanen ondorioz, zati batzuetan kaltetuta etxeetako sarrerengainetik dago. Beraz, altuera jautsi eta gaur egun ez dauden espaloiak eginen dira bide bazterretan. Bideak



UTZITAKO ARGAZKIA

Mitxel Aginaga narbartearra hirugarren izan da Munduko Green Cup txapelketan

Martiko taldeko Mitxel Aginaga narbartearra hirugarren izan zen Patagonian egin zen Munduko Green Cup txapelketan. Brasilgo Oscar Galindez izan zen txapelidun eta Argentinako Massi Morales bigarren. Aginagak, berriki hildako Peio Martikorenari eskaini zion bere lorpena eta proba hasi baino lehen, minutuko isilunea gorde zen Berako enpresarioaren oroigarri. Maiatzaren 7an Espainiako txapelketan parte hartuko du Aginagak, Puetollanon (Ciudad Real).

lau metro terdi eta sei metro arteko zabalera izanen du eta horren arabera, espaloiak ere metro erdi eta metro terdi artekoak izanen dira. Zola berria ormigoia iza-

nen da herriguneko 240 metrotan eta zeharbidaren hasierako eta bukaerako 380 metrotan asfaltoa emanen da.

Sare berritzeari dagokionez, edateko ura

banatzeko eta ur zikinak eta euritakoak biltzeko tubo berriak sartuko dira eta gas, elektrizitate, telefono eta argitari zerbitzuak lur azpitik kanalizatuko dira.



«Eskola Jarduerak Naturan» antolatzeke 78.000 euroko dirulaguntza Partzuergoari

Nafarroako Gobernuko menpe dagoen Kirol eta Gaztediaren Institutuak 78.000 euroko dirulaguntza emanen dio Bertizko Partzuergo Turistikoari 2006an hamargarren aldiz eginen den Eskolako Jarduerak Naturan kanpaina antolatu eta kudeatzeko. Partzuergoa da, hain zuzen, eskualde osoan kanpaina hau antolatzeko baliabide tekniko eta materialak dituen erakunde bakarra. Orain arte egin diren bederatzik kanpainen 4.900 ikaslek hartu dute parte. Kanpaina honekin, ezezagunagoak diren kirolak bultzatu nahi dira, hala nola, rafting-a, piragua, hidrospeed-a eta kainoien jautsiera, beti ere naturarekin harremanean. Ingurumen hezkuntza hartzeaz gain, Nafarroako leku ezberdinetako gaztetxoaren arteko elkarbizitza ere indartzen da.

Pitti
eskabazloak
Tel: 616 513 491

Manizketa etxea, 34 ZUBIETA

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 458 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ITUREN

Hainbat bisitari ibili dira herrian barna Aste Santu osoan

Aurtizko joaldunak Bergaran eta Ordizian izan dira

Arkaitz MINDEGIA

Aste Santu honetan, herrian jende ugari ibili da, eskualde osoan bezala. Mendaurren dagoen Trinitate ermitara jende aunitz goitu da. Eguraldiaren laguntzarekin, bisitariak nonahitik etorri dira, Bartzelona, Valentzia... landa etxe eta ostatueta ere jendea nabarmendu da eta denak beteak egon dira.

Eskolako ekitaldiak

Herriko eskolan Aste Santuko oporrak hartu baino lehen ekintza batzuk egin zituzten. Hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren

mailakoak Xabierreko eliza ezagutzera joan ziren goizez eta arratsaldean Iruñeko Itaroan dagoen izotzezko pistan ibili ziren. Bertze alde-tik, urtero bezala, Xorroxin irrati ibiltaria Iturenen izan zen. Azken asteetan prestatuko saioak herritarrengana hedatu zituzten irratia-ribidez.

Aurtizko joaldunak Bergaran

Apirilaren 8an Aurtizko joaldunak Bergaran ospatu zen Erramu Zapatuko azokan izan ziren. Aitzineko astean, Ordiziako gaztetxearen 25. urteurrenako bestan ere izan ziren.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Zeharbidea moldatzeko hitzarmena sinatu dute Iturengo Udalak eta Herrilan kontseilariak

Jose Mari Gorosterrazu alkateak eta Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernu-ko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariak zeharbidea moldatzeko eta finantzatzeko hitzarmena sinatu zuten apirilaren 18an.



PERTSONAIA
Garbiñe OLAZAR

Haur kantu jaialdian parte hartu zuten bikoteka eta bakarka

Iturengo neskatxa gazte honek aurtien egin diren haur kantu jaialdian parte hartu zuen bi aldiz, taldeka eta bakarka. Taldeka Txomin Artolaren "Nire Aberria" abestia kantatu zuen eta bakarka SorotanBebelen "Marinelaren

zain" kantua. Lehenengo saioa Beran egin zen eta bere ahots goxo horrekin Iruñeko Gaiarre aretoan egin zen azkeneko saioara sailkatu zen, bakarlarri gisara. Saio honetan saritua izan zen egingako lanarengatik.



Zure lan aukerak kezkatzen zaitu?

Bortzirietako Toki Ona Institutuak lagunduko ditu.

Enpresa ertain eta handietan lanpostu kualifikatu bat lortzeko ikasketak eskeintzen dizkizugu.

Baboi ergoa, edo garai bateko ODU, egina baduzu Bortzirietako Toki Ona Institutuan Industria Ekipoen Mantenimendua Goi Mailako Heziketa Zikloa ikasteko aukera duzu.

Enpresa produkzio sistema automatizatua hobetzea eta martxan mantentzea izango da zure ardura, gizon-emakume langile talde bat egoki antolatuz.



Hobetu nahi?

- **Industria Ekipoen Mantenimenduan Goi Mailako Teknikari** titulua erdietsiko duzu.
- Horretarako espezialitateko alderdi teknikoak menperatuko dituzu (mekanika, elektrizitatea, pneumatika, hidraulika, automatika, segurtasuna, enpresen kudeaketa etab.)
- Ikasketen titulua jasotzeko azken ikasturtearen bukaeran Lantokietako Praktikak egin beharko dira (320 ordu), beraz aukeratutako inguruko enpresetan egingo delarik. Hizkuntza jakinez gero, atzerriko enpresetan (Ingalaterra, Frantzia...) egiteko aukera ere izango duzu.

Informazio gehiago: www.pnta.cfnavarra.es/iesbera
Toki Ona BHI Eztegara posealekua 34, 31780 Bera
Tel. 948 625 000

ARKUPEAK

Gimnasia erakustaldia eskaini zuten erretiratuek apirilaren 20an

Berako kiroldegian ehun lagun baino gehiago aritu ziren kirol egiten

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak urtero egiten duen gimnasia erakustaldia aurten ere Berako kiroldegian egin zuen apirilaren 20an. Egurdi aldera, 340 bat lagun bildu ziren, azken urteetan baino gutxiago, horietako batzuk eskainiko zuten gimnasia saioa ikusteko. Guzira 115 lagun izan dira ariketak egiten ibili direnak, hiru taldetan banatuak. Lehenik, talde guzietan desfilea egin zuten Javier Larralde txistulariaren gibeletik. Saioa hasten Leitza eta Goizuetakoak izan ziren, Patxi Txokaroren agindupean. Ondotik, Borja Senosiainek entrenatzen duen Berako taldea aritu zen, oraingoan Leire Porturen ardurapean. Bukatzeko, Doneztebe, Sunbilla eta Urdazubiokoak aritu ziren, berri ere Patxi Txokarorekin. Kirolariek, urtean herriz herri egiten diren ikastaroetan ikasitakoa erakutsi zuten. Gimnasia erakustaldiaren ondotik, gimnasia egin zutenek eta ikusleek elkarrekin bazkaldu zuten Zubiondo eta Zalain jatetxeetan.

URTEKO BESTA EKAINAREN 6AN

Arkupeak elkartearen urteko besta ekainaren 6an ospatuko da, astertearekin. Aurten, ekitaldia bereziagoa izan



ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

Berako taldea ageri da goitiko argazkian eta behean, Goizuetako taldeko kirolari batzuk.

nen da, elkarteak hogeigarren urteurrena ospatuko baitu. Beti bezala, 85 urte bete dituzten bazkideei eta Urrezko Ezteiak egin dituzten senar-emazteei

omenaldia eskainiko zaie. Egitaraua erabat zehaztu gabe baldin badago ere, goizean meza adituko dute Gorraizko eliza berrian eta gero inguruko jatetxe-

ren batean bazkalduko dute.

Egun berezi honetan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 3a duzte izen emateko azken eguna.

115 gimnasta

Bera: M^a Carmen Castelos, Pakita Urtizborea, Victoria Castejón, Pakita Burgete, M^a Josefa Loiarde, Lucia Goldarazena, Carmen Mitxelorena, Pepita Mingedea, Aicha Kadar, Gertrudis Perurena, Araceli Gallego, M^a Jesus Zubieta, M^a Josefa Bengoetxea, Ester Iñarga, Josefina Iglesias, Josette Suso, Maria Martikorena, Mari Romero, Malen Barandiaran, Carmen Rodriguez, M^a Justa, Telletxea, Pura Correa, Kontxi Mikelperizena, Pilar Irtzoki, Pepita Agirre, Teresa Etxebeste, M^a Jesus Diaz, Carmen Jimenez, Angelita Corral eta Pakita Irtzoki.

Doneztebe. Itziar Juanikorena, M^a Josefa Arretxea, Belen Ibarra, M^a Merxe Altzuri, Maritxu Mutuberria, M^a Carmen Irigoien, Clotilde Iñigo, Isabel Juanikorena eta M^a Isabel Mitxelorena.

Elizondo. Kontxita Iturriria, Eloisa Garbalena, Maritxu Oharriz, M^a Carmen Bernal, Anuntxi Mendiberri, M^a Carmen Auzki, Juana M^a Urrutia, Bernardette Arriada, Gerardo Iribarren, Rosario Iribamegarai, Juanita Dendarrieta, Ana M^a Etulain, Asun Alti, M^a Jesus Etxandi, M^a Jesus Gamio, Rosa Mendiburu eta M^a Jesus Zubiri.

Goizuetakoak. M^a Carmen Zabala, Jose Antonio Elizegi, M^a Carmen Berroeta, Milagros NARBARTO, Jose Ramon Arotzena, Gabino Salamanca, Pakita Goizuetako, Kontxita Altamira, Juan Jose Apezetxea, M^a Isabel Etxeberria, Pepita Untxalo, Maritxu Aizpuru, Gregoria Etxegia, M^a Pilar Arratibel, Milagros Goizuetako, Juan Etxegia, Manuel Ansa, Josefina Zubieta, Eustakio Zubieta, M^a Satur Salaberria, Manoli Loiarde, Felisa Salaberria, Cecilia Perurena, Francisca Makazaga, Maria Salaberria, Javier Tomasena eta M^a Milagros Apezetxea.

Leitza. Amparo Azpiroz, Joaquina Azpiroz, Carmen Gaztañaga, Tere Perurena, Serafina Ezkurra, Reyes Zubeldia, Pilar Alkoz, M^a Josefa Alduntzin, Isabel Huarte, Eusebio Maritoren, Sebastiana Ezkurra, Juanita Eskudero, M^a Carmen Petrirena, Flori Mitxelena, Itziar Sagastibeltza, Pilar Martinez, Pakita Aierdi, Lorentxa Telletxea, Inaxi Lujanbio, Justo Mihura, Benantxi Bengoetxea eta Edurne Oteiza.

Sunbilla. Iñaki Aizkorbe, Paula M^a Sanzberro, Teresa Agirre, Juana M^a Agirre, M^a Carmen Errandonea eta Maria Zubieta. **Urdazubi.** Teresita Bidart, Miguel Migeltorena, Francisco Menta eta Francisco Irigoien.

SALDIAS

Bertso afaria eta gaupasa eginen dira maiatzaren 6an

Irazu eta Silveira bertsoarietz gain, Jalisko Band taldea izanen da



ttipi-ttapa

2006ko San Juan bestetarako gero eta gutxiago falta da. Parrandarako gogo duenak ordea, izanen du lehenagotik ere egiteko aukera. Larunbat honetan, urrunago joan gabe, maiatzaren 6an, zikiro jatea eta gaupasa izanen dira herrian.

Afariak gaueko 9ak aldera eginen da, herriko pilotalekuan. Afaltzeko zizka-mizkak, zopa, piperrada, zikiroa, postrea, kafea eta kopa izanen dira. Mahaian ez da ez bertsoarik ezta umorerik ere faltako, Jexux Mari Irazu eta Nafarroako bertsolari txapelketan irabazle serratatu berri den Xabier Silveiraren eskutik.

Afalondoan hasi eta goizalderarte Jalisko Band taldeak joko du herriko plazan. Dударik ez dago jendez beteko dela herria, egitarau zabalak ikusita.

Afarirako txartelak, 28 euroan honako ostatu hauek daude salgai: Saldisko Herriko Ostata, Ezkurrako Barranka, Doneztebeko Cafe eta Titi eta Leitzaiko Musunzar. Txartelarekin, afaritik kanpo kontsumizio bat izanen da doan. Gaupasara etorri nahi duenarentzat sarrera librekoa izanen da.

Urrutia Maisu

Lizasoren lesioa medio, Migel Mari Urrutia herriko erremontelariak Masters txapelketan parte hartu du. 35-19 galdu zuen Ezkurrearekin.

C 2

INKET K EK FUNTZI N MEN U

s r r z r u r t z n r z u r k n t r

ur l Kutx a s r r z r u r z n r z u r k n t r t u u r r r n r r .
 H r r t k k r f t u l s u r l Kutx a C n t r m z t k t l t u u r
 l n c n k n u r r n k t k r r k f u n t z n m n u r r n n n .

ZU EK NFI NTZ , GU E II LEGIN

NAFARR AK
RUR L KUTXA

GOIZUETA

Gero eta handiagoak diren 'Txino' auzoko festak asteburuan ospatuko dira

Esteban AROTZENA

Ostiral honetan, maiatzak 5, 23:00etatik aurrera Zubiondo tabernan jokatu den mus txapelketak emanen die hasiera herrian «Txino» izenez ezagutzen den auzoko festen hirugarren edizioari.

Biharamoneko egitaraua goi mailako ekitaldiz beteta dago goizetik arratsera, aurreko urtetakoa baino askoz aberatsagoa dudarik gabe. 11etan umeentzako jokoak izanen dira Goxaliren eskutik; 12etan txupinazoa botako da, eta ondoren erraldoiak eta buruhandiak ibiliko

dira auzoan txistularien konpartsa lagun dutelarik; 12:30ak aldera Txino auzoa gainerako herri guziaren kontrako herri kirol desafioa hasiko da, aizkoran, txingetan, trontzan eta kokkor biltzen egin beharko dutelarik partaideek. Jaialdia bukatzeko Aimar Irigoien harrijasotzaileak erakustaldia eskainiko du.

HERRI BAZKARIA

Aurreko urtekoen antzeko erantzuna ematen baldin badie goizuetarrek, herri bazkaria izanen da aurten ere Txinoko festen izarra.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Udaberriroko barrikotea antolatu zuen apirilaren 22an presoan aldeko herriko komiteak. Jendeak erantzun ederra eman zuen aurten ere, adin guzietako 150 lagun elkartu baitziren eskoletako frontoian.

Txartelak salgai daude oraindik Amaiarenean. eguraldi txarra eginen balu eskoletako frontoian izanen da bazkaria. Onarekin, berriz, auzoko pilotaplaza irekian eginen da, jakina.

Bazkal ondoren, erromeria izanen da Ene Bada taldearen eskutik; 18:30etan, Ipar Euskal Herriko dantzarien emanaldia; 20:00etan bertso-poteoa, Xabier Silveira, Fredi Paia eta «Mi-

nistro»rekin. Gaueko 12:00etatik goizaldera arte DJ Bela txoznan. Gazte Asanbladak hartu du aurten ere bere gain festa eder honen antolakuntza, Udala eta auzoko bitabernak, Gordea eta Zubiondo, babesle direlarik.

Internet

Internet-eko banda zabala edo ADSL linea nahi duten herritarren izenak biltzen ari da

Udala. Beraz, interesatuek Herriko Etxera joan beharko dute ahal den abudoen eginkizun hori bete ahal izateko.

Aberri Eguna

70-80 lagunek erantzun zioten Aberri Egunean Udalbiltzaren deialdiari, udaletxearen aurrean bilduz. Bandarak, ikurriña barne, Herriko Etxeko balkoi nagusian egon ziren egun osoan.

ARESO

Sei laguneko taldetan biltzen dira arratsaldetan ludotekan

Irailerako lokal berria prestatzen saiatuko da Udala

Juana Mari SAIZAR

Ludotekan esku lanak, eraikuntza jolasak eta puzzleak dira gehien erabiltzen diren tresnak Ainhoa Anzizar monitorea jakinarazi duenez. Umeek han pasatzen dute arratsaldea, momento horretan jolastu nahi dutenarekin. 6 laguneko taldea biltzen da, oso talde polita lan

egiteko. Eskolako espazio batean ari dira momentuz, eta gela konpartitua denez gauzak uzteko eta lanak gordetzeko toki gehiegirik ez omen dute. Bi espazio hoiak ezin dira nahastu. Material asko Leitzako ludotekatik ekartzen omen dituzte. Han toki gehiago dutenez 4 espazio ezberdin dituz-

te sukalde txokoa, irakurketa txokoa, erai-kuntza taillera eta txontxongilo eszenatokia. Hau dena posible egiteko irailerako saiatuko direla herrian lokala berria prestatzen jakinarazi du alkateak. Jolastuz umeen alderdi asko garatu daiteke, haurrak irudimena eta sormena lantzen du, baita komu-



ARGAZKIA: JUANA MARI

Ludotekako eremua eskolan kokatua dago.

nikazioa ere. Detekzio goiztarra ere antzeman dezake monitorea.

Musika lehiaketa

Zuriñe Goikoetxeak, hi-

rugarren postua lortu zuen 13-15 urteko barkarrietan, Aralar Musika Eskolak antolatu duen Satur Erleta I. musika lehiaketan. Pianoarekin aritu zen.

LEITZA

Natur Bideen Eguna ospatuko da maiatzaren 7an Plazaolaren geltokian

Geltokiko eraikinak txukundu eta moldatzeko asmoa du Udalak

ttipi-ttapa

Plazaolako estazio-ko eraikinen gaur egungo itxura eta egoera kaxkarra aintzat harturik eta behin betiko egoera legala argitu ondotik, Udalak Nafarroako Gobernuari lokal horiek bere gain hartu ditzala eskatu dio. Izan ere, Patxi Saenz alkateak argitu digunez, «*jabetzaren gaia epaitegietan zegoen, baina orain dela gutxi atera den sententzia baten arabera Nafarroako Gobernua da geltokiaren, biltegiaren eta kotxeren jabea*». Udalaren asmoa eraikinak txukuntzea eta moldatzea da, Nafarroako Gobernutik dagoeneko jakinarazi baitute ez dutela deus egiteko asmorik. Biltegia nahiko ongi badago ere, geltokiaren eta kotxeren egoera oso txarra da. Horregatik, Udalak lokalak hustutzea eskatu dio Gobernuari, hortik aurrera txukuntzen eta erabiltzen hasteko. Alkateak esan digunez, «*lru-*



ARTXIBOKOA

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere pailazoek ez dute hutsik egingo Natur Bideen Eguneko egitarauan.

ñetik deus egin behar ez badute, gutxienez herriarentzat uztea nahi dugu». Eraikin hauei turismoarekin eta kulturarekin lotutako erabileraren bat emateko egitasmoa aztertzen ari da Udala, nahiz eta oraindik azkarregi den publiko egiteko: «*Badago pertsona baten intere-*

sa eta proposamena eta udalari gustatzen zaio. Uda aurretik proiektua lantzeko eta Gobernuari zenbakiak eta proiektua aurkezteko asmoa dugu». Proiektu honetan hasi baino lehen, Nafarroako Gobernuari eskatu zaio maiatzaren 7rako biltegia uztea, Natur Bideen Eguna anto-

latu behar duelako Udalak Plazaolako Par-tzuergoarekin batera.

EGITARAU ZABALA IZANGO DU

NATUR BIDEEN EGUNAK
Izan ere, egun horretarako egitarau zabalak prestatua dago. 9etan helduei eta fami-liei zuzendutako hiru bi-

zikleta ateraldi propo-satu dira, Leitza iparra (Geltokia-Gipuzkoako muga-geltokia, 10 km.), Leitza hegoa (Geltokia-Uitziko tunela-Geltokia, 14 km.) eta Lekunberri eta Leitza geltokiak lotzendituen 15 kilome-troko ibilbideekin. 11etan umeentzako 4 kilome-troko ateraldia egingo da geltokitik Erreka au-zora. Pailazoak eta glo-boa ere izanen dira. Eguerdian kontzertua eskainiko du Skifaia Folck taldeak. 12:30etan pintxoak eta edariak ba-natuko dira ibilbideren bat egitera informazio gunean apuntatu dire-nen artean. Eguraldiak laguntzen badu, 10:00etatik 14:00etara globo gatibuak igotze-ko aukera izanen da. Honetaz gain, ordu er-di, 12etan, 12:30etan, 13:00etan eta 13:30e-tan, Iñaki Perurenaren «Peru Harri» parkera bi-sita gidatuak egingen di-ra. Horretarako, aurre-tik erreserba egin behar da informazio gunean.

Ark_b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Hualde Gotzai 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel
Eraikuntza · Hirigintza · Udal-aholkularitza

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucésba @ msn.com

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA
Kontaketa ondategia: Petatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordua eskata
ONDORIOETATIK INDIARTZEKO:
Diabetes · Auzua · Zizareak · Larri uzaleko alergia · Barua mina
Oinuen izardie · Prostatia, etab...
IKUSMENAREN BERRERAZARAZEA:
Miegia · Bista alferria · Estrabismoa · Begi larriak kataraktak
GOHARRE ARAZOAK:
Bikartzea · Artritis · Erreuma · Arteria · Lumbalgia · Bikurdariek · etab
Telefonoa: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 · IRUN

BAZTAN

Irurita-Elizondo saihebidia 2009. urterako akitzea espero du Udalak

Herrilan Departamentuarekin izandako bilerari «balorazio ona» eman dio Eusko Alkartasunak

ttipi-ttapa

Balleko Udalak eta Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako ordezkari batek bilkura izan zuten apirilaren 12an, Irurita-Elizondo saihebidia egitasmoak duen egoeratik ateratzeko. 2004 urte bukeraz geroztik, saihebidearen proiektua geldirik dago.

Bileraren ondotik prentsaren aitzinean egindako adierazpenetan, Florentino Goñi EAKo zinegotziak eta Maiorga Ramirezek, EAKo Nafarroako presidentek bileraren balorazio ona egin zuten. Nafarroako Gobernuak dituen hiru proposamen berri lauzpabortz hilebeteren barrenean helaraziko diela hitz hartu zuten. Ondotik, Baz-

tango Udalak erabaki bat hartu beharko du, egitasmo egokiena aukeratzeko. Gauzak ongi joanez gero, lanen adjudikazioa 2007garren urtean egin ahalko litzateke. Kasu horretan, obrak bi urteren buruan akitzea aurrikusten da. Halere, Florentino Goñi zinegotziak aipatu zuen bezala, «*zuhuribili beharko gara, ez baita lehen aldia gobernutik zerbait hitz ematen dutela eta gero ez dutela egiten*».

AZPIKUETA ETA ORABIDEAKO ERREPIDEAK

Bilkura berean Orabideako errepidea eta Azpilkuetako sarbidearen egoera ere aipatu zituzten. Lehenbizikoaren kasuan, arriskuak diren hameka kilometro



UTZITAKO ARGAZIAK

Argazki Zaharren erakusketa Arraiozko Ariztialden Ariztialde elkarteak, Arraiozko argazki zaharren erakusketa ikusgai izan zen apirilaren 13tik 15era. Ehundaka argazki ikusi ahal izan ziren, tartean Arraiozko Jauregiaren argazki zaharra eta berrixagoak ere. Beheitikoan, Micaela Etxandi, Jon Oskoz eta Imanol Oskoz ageri dira, Jaxinto astoarekin.

lehenbailehen konpontzearen konpromisoa hartu zuten. Azpilkuetako kasuan berriz, konpontzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak, baina ez omen da gaur egungo lehentasuna.

Eskisaroiako harrobia

Eskisaroi inguruan harrobia irekitzeko aukerak aztertzeko zundaketak egin nahi ditu Azpiroz y Saralegi enpresak. Horren inguruan

ez zen erabakirik hartu apirilaren 18ko Junta Generalean. Horretarako batzorde berezia osatuko da, Mendi eta Ingurumen zinegotziekin eta herrietako alkateekin osatua.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Brazilo Inalde Karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Lanbide heziketa lanerako gubia

Administrazioa eta finantzak
Goi Mallako Zikloa

NORRENGANDI: Antzerki, merkatal, ingurumen, irakasketa eta komunikazioa eta beste 14 lan zehazki zehazki zehazki.

SARBIDERAKO BALDINTZAK: Antzerki, UR, UR1 eta kultura zehazkiak.

INTERESGARRIA ZURETZAT: **CONDICIOKAKO ZURETA:** **DIRA:** **EXPRESA:**

DIRE PROPOSAMENA: **Finantziak eta Fekalitate:** **12 urte astan:** **Aplicazio informazioa eta** **informatioa** **12 urte astan**

LES LERAROKO ELIZONDO KILL

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatua

948 581 467
948 580 433

Frantziako estatu. 17
Ametzalde 38
ELBETE

BAZTAN

San Frantzisko Xabierkoari buruzko solasaldiak eta ekitaldiak egingen dira

Azpilkueta eta Amaiurren barna bisita gidatua egingen da maiatzaren 20an

ttipi-ttapa

Apiril eta maiatzean Baztanen prestatu den kultur egitarau zabalaren barnean, hainbat solasaldi izanen dira asteotan, Xabierko San Frantzisko hizpide hartuta. Apirilaren 28an, «San Frantzisko Xabierkoaren Ibilaldi unibertsala» solasaldia eskaini zuen Carmen Jusuek. Maiatzaren 6an, «San Frantzisko Xabierkoa, Nafarroako zaindaria» solasaldia eskainiko du Ricardo Fernandez Graciak Etnografia Museoan 19:30etan, Etnografia Museoaren Lagunen Elkarteak antolatuta. Arizkunenea Kultur Etxean ere izanen dira San Frantziskori buruzko solasaldiak. Maiatzaren 17an, Pedro Maria Esartek «Frantzisko Xabierkoa» solasaldia emanen du; maiatzaren 18an, Gabriela Torresek «San Frantzisko Xabierkoaren ikonografia. Hagiografiatik artera» solasaldia eta maiatzaren 19an, Iñaki



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztandarrak Pablo Maloren azken pelikulan
Baztango 29 neskatxek eta Mirentxu Goienetxe amaiurtarrak aktore lanak bete dituzte Pablo Maloren «La sombra de nadie» pelikularen filmaketan. Grabaketa lanak Lekarozen egin dira, beraz, pelikua erdi baztandarra da.

Sagredok «Amaiaurko Gaztelua, egingen den berreskuratzea» solasaldia emanen du. Hiruak, 19:30etan izanen dira.

Maiatzaren 20an, berriz, Amaiur eta Azpilkueta barna bisita gidatua egingen da, Baztan eta Urdazubiko Santiago Bidearen Lagun Elkarteak, Nabarralde, Eusko Kultura Fundazioa eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren lagun-

tzaz. Gai honekin lotuta, apirilaren 24tik maiatzaren 20ra Xabierren Mundua erakusketa zabalduko da Arizkunenean, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren babesean.

Ikastaroak

Ikastaroak dagokienez, maiatzaren 5ean eta 6an, musikaren oinarrizko ikastaroa es-

kainiko du Teresa Catalanek sei orduz Arizkunenea Kultur Etxean, 18:30etatik 21:30etara. Guttienek hamar ikasle izan beharko dira eta 6 euro ordaindu beharko dituzte.

Zazpi urtetik goitiko haurrentzako, berriz, mukuen tailerra antolatu du Jorge Oteiza Etnografia Museoaren Lagunen Elkarteak. Arizkun apirilaren 29an,

Iruritan maiatzaren 6an, Zigan maiatzaren 13an eta Elizondon maiatzaren 20an egingen da tailerra, goizeko 10:30etatik 13:30etara.

Informatika eta Internet lantzeko hastapena ere eskainiko da Arizkunenea Kultur Etxean doan. Bi taldetan banatuko dira ikasleak. Talde batek maiatzaren 15etik 25era izanen du ikastaroa, goizeko 10:00etatik 12:00etara eta bertzeak maiatzaren 29tik ekainaren 8ra, 17:30etatik 19:30etara. Izen ematea, Iturbrok enpresaren 948 131832 telefonoan egin behar da eta arestian aipatu bezala, doan izanen da.

Ikastaroekin akitzeko, maiatzeko astearte eta ortzegunetan pintura ikastaroa emanen da Arizkunenean, hiru taldetan banatuta. Lehen goizez arituko da, 11:00etatik 13:30etara eta bertze biak arratsalde, 17:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
 JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxo!

Ordoki Industriaidea
 Tfnoa: 948 453 403
 31713 ARIZKUN

abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

- steak - leihoak - kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gutxiako kalekzio elektrikoak

Santiago 56. bajo • 31700 ELIZONDO
 Tel. 948 581 152 • 667 264 025 • 696 970 725
 maxeren@terra.es

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

URDAZUBI

Xaharren oroitzapenak bideoan biltzeko asmoa gauzatzen hasi da

Lau herritar ari dira, Euskokultur Fundazioaren gidaritzapean

Margari eta Koro

Gure bi herri haue-
tan izigarriko lan polita
egiteko asmoa dago: gu-
re xaharrendik bil-
tzea beren gazte den-
boretako oroitzapenak.
Herri bakoitzetik hauta-
tuko dira adineko per-
sona batzuk eta, berek
kontaktzen dituztenak bi-
deoz grabatuz, ia gaur
egun galdua den le-
hengo bizimodua gor-
detzea da intentzioa.

Lan hau herritarrek
eginen dute, baina be-
rez Euskokultur Funda-
zioak gidatzen du eta
Nafarroako Unibertsita-
tea, Nafarroko Kutxa eta
Euskaltzaindiak lagun-
tzen dute, proiektua Na-
farroa osoan egiten ari
baitira, borondatea era-
kusten duten herri guz-
tietan.

Lana martxan dago,
baina interesa duenak
telefono hauetara dei-
tzen ahal du: Urdazubin
948 599206 (Ana) eta
Zugarramurdi 948
599263 (Helena).

**Zaborrontzi
inguruak
txukuntzen**

Urte hasieran jarri-
ren zaborra bereizteko
kontenedore espresak,
lau gisakoak: papera,
berina, metala eta bric-
ka. Hauek denak Azke-
tako aparkalekuko baz-
ter batean eman ziren,
eta apirilko hilabete hon-
etan txoko hau txu-
kundu dute: aparkale-
kutik bereizteko aintzi-
neko aldean landareak



ARGAZKIAK: MARGARI

Argazkian ageri den ardiak zazpi hilabetez 5 bildots egin ditu. Lehenbiziko erditzean bi egin zituen eta orain berriki argazkian ageri diren bertze hiruak. Altzualdeko-bordako Felipe eta Graxiri zorionak eman behar zaizkie azien-
dak ainen ongi zaintzeagatik



Joan den udan auzola-
nean pintatu eta joko
berriak jarri ziren haur
txikien eskolako patio-
an, eta orain bertze osa-
garri batzuk jarri ditu
Guraso Elkarteak: ar-
gazkian ageri diren txi-
rrista eta etxetxoak.

eman dituzte, zurezko
hesi batetaz inguratu di-
re eta azpiko aldean Bix-

karreko kaskotik hartu-
tako lore-basak landa-
tu dituzte. Lan hauekin

batera, Azketako mal-
dan loreak ere landatu
ditu Herriko Etxeak.

MENDIALDE
Jatetxea
T: 948 453 060
N: 121-8, 66 km
T. AMAIUR

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

udana
salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko
bakailu gazitua

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

Jabier Lekuona da udal arkitekto berria

ttipi-ttapa

Urdazubiko udalak martxotik aintzinerat udal arkitekto berria du, hirigintza aholkulari gisa. Berako Jabier Lekuona arkitekto berria, hilabete bakoitzaren azken asteazkenean, goizez egoten da Herriko Etxean, bizilagun eta interesatu guzietan hirigintza arloan dituzten kontsultak aztertzeko edo argitzeko. Horregatik, norbaitek kontsultaren bat egin nahi balu, udalarekin harremanetan jarri behar harko luke, ondotik, kontsulta horiek aipatutako egunetan antolatuko. Hirigintza zerbitzu berri honen barne, teknikari bat herrian egiten ari diren obra guztiak aztertzea agertuko da (obrak baimenduak izan ala ez), horrela Udalak uste dituen neurriak har ditzan, Norbaitek baimenik gabe obrak eginen balitu, ardura guziaz be-
rea izanen litzateke.

SEMPERE

Akitaniako batera fanfarren lehiaketa Senperen eginen da maiatzaren 6an eta 7an

Aintzira berriz betetzen ari da eta udan betea izan behar luke

Franck DOLOSOR

Musika nagusituko da herrian maiatzaren lehen asteburuan. Emak Hor taldeak Akitania lurraldeko batera fanfarren zoingehiagoka prestatu du maiatzaren 6 eta 7an. Bortz urteko geldialdiaren ondoren, gan den urtean lehiaketan bidea hartu zuen berriz Emak Hor taldeak. Aurten, besta horren prestatzeaz arduratuko dira herriko musikariak. Larunbat gauean, Chevanceaux-ko eta Akitania lurraldeko taldea entzuten ahalko dira elizan. Biharamunean, zoingehiagoka hasiko da goizeko 9etan. Orotarat, Akitania osoko zortzi talde lehiatuko dira. Gero desfilea eginen dute Herriko Etxeraino eta elgarrekin kontzertua eskainiko dute. Bazkariaren ondotik, arratsaldeko 3etan bertze kontzertua eta sari emate-

ak eginen dira. Emak Hor taldearen ondoan, Heleta, Layrac, Makea, Ygos eta Bidarteko batera fanfarreak izanen dira bertzeak bertze.

Istripu ikusgarria aintziran

Istripu ikusgarria bezain penagarria gertatu zen aintziran apirilaren 9an igandearekin. Aintziraren inguruan zebilen zaldi bat, eta bere jabea, putzu batean erori ziren. Istripua ugartearen ondoan gertatu zen. Normalki ezin da hor ibili, baina egun hortan ez zen urik, aintzira hustu baitute lanak egiteko. Gizona berehala atera zen, baina zaldiak ezin izan zuen bere baitarik atera zepo hortatik. Su hiltzaileek soka batekin atera zuten zaldia. Biziki unatua eta hartsik gabe gelditu zen zaldia eta arearen gaine-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Suhiltzaileek soka batekin atera behar izan zuten zaldia aintziratik.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Emak Hor taldeak 90 urte bete ditu. Gaur, 20 musikarik osatzen dute taldea.

an bat batean erori zen, hil balitz bezala. Handik gutxirat berriz xutitu zen.

Batzuek diote Herriko Etxeak aintziraren inguruak zaindu behar lituzkeela lanen denboran, baina xuxen ote da putzu horietan oinez ibiltzea, jakinez nornahi eror daitekela usaian ura dagoen toki hortan? Hondartzarat zakurrek

ez dutela sartu behar agertzen da nonahi eta halere egunero abereak daude arearen gainean, eta makurrago urean mainatzen ari...

Ahozko literatura Oxtikenekoak elkarrearen eskutik

Gure eskualdeko ahoz-

ko literaturaren bilduma plazaratu dute berriki Oxtikenekoak elkarteak, Sarako ikastolak eta Euskal Kultur Erakundeak. Lan aberats hontan balio handiko testuak irakur ditzazke, horien artean Olandeiko Fifinek, Ganizon Bergarak eta Antton Milloxe ongi atxikiak zituzten kantuak.

IBARDINGO ETXERAINO
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559342319
Maixan eta Véronique
CADA

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 591 131
Zuzendaritza erag. 1. km
URDAZUBI

bentamiguel
detala, jantziak eta osagarriak

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Taldea
Ikurrak
Jantziak
Urdaizubi

Ibardingo Lepoa • ☎ 948 631209

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
ALFA

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SARA

120 idazlek parte hartu dute Sarako Biltzarrean

Herriko artisten lanak ere ikusi zituzten bildutako mila lagunek

Laetitia eta Sandrine


Urte guziz bezala, Pazko astelehenez Idazleen Biltzarra iragan da Saran. Orotara 120 idazlek parte hartu dute, eta gutti gora behera mila pertsona hurbildu dira egun osoa. Hor ikusten ahal ziren Sarako artisten obrak: Brigitte Sasias (markoak, kartoizatuak); Amélie Sasias (edertzape-nak); Monique Maumy (mosaikoak); Hélène Bérinstein, Sylvie Lausucq (joskintzak); Mariano Arieta, Jacqueline Barboure, Claude Cariou, Bixente Garcia, Michel Acala, Georges Labrosse, Rilaine Peloffi, Jean Pouyet, Jacqueline Winter (margokak) eta Olivier Roussel (eskulturak).

Bertzalde Jacques Antz saratarrak, bi liburu aurkeztu ditu, bat «Autrefois Sare» deitua, Sarako argazki zaharrekina egin eta bestea «Frontière Contrebande de la Bidassoa à Dancharia». Jean Pierre Etxeberriek, Sarako apezak, «Izarragidari» liburua ateratu du egun hortan.

Jexux Elosegik argazki multzobater aurkeztu zituen ere «Sara eta Saratarrak 1936-1940 urteetan» gaiarekin, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Lazkaoko Beneditarren Artxibategiak prestatuak.

Bazkaria

Bazkari a antolatua da Le Pullman jatetxean San Inazioako lepoan



Bai Euskarari marrazki lehiaketa

Bai Euskarari Akordioaren kariatara, Sarako hiru eskolek marrazki lehiaketa baten parte hartu dute hilabete honetan. Haurrak klaseka bildu dira eta Saran Bai Euskarari gaiaren inguruan, haien artista gaitasunak erakutsi dizkigute. Obrak Pazkoko astelehenean iragan den Idazleen Biltzarrean ikusi ahal izan ditugu; hiru marrazki saritu dira, bat maila bakoitzeko, eta hurrek opari politik jasoko dituzte bakantzetatik sartu eta, Elkarrek eskainirik. Urtean Bai Euskarari Akordioaren baitan egiten diren hainbat ekimenen artean sartzen da marrazki lehiaketa hau, herritar guztiak inplika daitezten.

maiatzaren 20an eguerditan, 1951ean sortu diren saratar guziendako. Izenak eman behar dira maiatzaren 14a aintzin Pantxo Goienetxeri (0559475017) edo Marie Jeanne Goietxeri (0559542421).

Errugbia

Aurten Sarako erreser-

ba taldeak sasoin onategin du, partida gehienak irabaziz. Apirilaren 16an igandearekin erreserbak irabazi du 10-5 Kanbon kontra, baina lehenak galdu egin du, 14-26.

Gau Pasa

Maiatzaren 13an larunbatarekin, Herri

Urrats bezperan, Sarako gaztetxeak kontzertu bat antolatzen du. Hor entzuten ahalko dira Sorkun, Kuraia eta Shalin Temple Defenders taldeak. Sartzea 8 euroan finkatua da. Arratsaldean Xiba jokoak egingen dira plazan iaz bezala eta animazio handia espero da.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreaka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Xabier Loitegi Berasategi eta **Sonia Zabaleta Altzuri**, Leitzakoak, 2005eko urriaren 15ean.

Josune Garmendia Tapia eta **Francisco Manuel Mesa Mancilla**, Lesakakoak Igantzín, apirilaren 22an.

Jean Yves Sorhouet eta **Jessica Galbert**, Sarakoak, apirilaren 29an.

Christophe Seminario eta **Mireille Lopes de Oliveira**, Sarakoak, apirilaren 29an.

Miguel Gamio Etxenike eta **Maria Teresa Juankorena Agerre**, Iruña eta Arraiozkoa, martxoaren 25ean.

Braulio Escagues Bidegain eta **Eva Maria Portu Berasategi**, Berakoak, apirilaren 8an.

Iñaki Odriozola Apeztegia eta **Itziar Igoa Txantre**, Berakoak, apirilaren 22an.

SORTZEAK

Egoi Irigoien Arretxea, Sunbillakoa, apirilaren 19an.

Eneko Arruferia Soubelet, Urdazubikoa, apirilaren 16an.

Josu Etxepeteleku Burgete, Lesakakoa, martxoaren 31n.

Xana Retegi Fernandez, Leitzakoa, apirilaren 12an.

Egoi Irigoien Arretxea, Sunbillakoa, apirilaren 19an.

Iraitz Iparragirre Zunda, Sunbillakoa, apirilaren 13an.

Xuban Taberna Mutuberria, Arantzakoa, apirilaren 10ean.

Oihan Sarratea Etxekolonea, Doneztebekoa, apirilaren 4an.

Jonathan Alvarez Garcia, Doneztebekoa, apirilaren 6an.

Amaia Etxarte Juanenea, Doneztebekoa, apirilaren 7an.

Gabrielle Bertin, Sarakoa, apirilaren 11n.

Aritz Zoco Argain, Iurutakoa, martxoaren 29an.

Ekiñe Lauragarai Ros, Elizondokoa, martxoaren 31n.

Ibai Aleman Azkarraga, Iurutakoa, martxoaren 31n.

Iker Sagardia Altzuarde, Almandozkoa, apirilaren 4an.

Urlei Etxandi Lauragarai, Elizondokoa, apirilaren 12an.

Idoia Ibarboure Gallego, Berakoa, martxoaren 29an.

HERIOTZAK

Petra Santesteban Gorosterrazu, Zubieta, apirilaren 5ean, 61 urte.

Mauricia Mitxelena Pikabea, Arantzakoa, apirilaren 11n, 89 urte.

Sor Mari Carmen Aranburu Urbistondo, Berakoa, apirilaren 11n, 89 urte.

Bernarda Roman Cid, Lesakakoa, apirilaren 12an, 60 urte.

Josefa Mariezkurrena Telletxea, Ezkurrakoa, apirilaren 13an, 83 urte.

Corpus Saldias Etxegia, Doneztebekoa, apirilaren 13an, 65 urte.

Jose Maria Telletxea Ubiria, Lesakakoa, apirilaren 13an, 75 urte.

Brigida Taberna Altzuri, Arantzakoa, apirilaren 14an, 90 urte.

Juliana Azpiroz Aleman, Lekarozkoa, apirilaren 15ean, 88 urte.

Fermina Goikoetxea Gogorza, Aresokoa, apirilaren 20an, 84 urte.

